

II - ARABAKO LURRALDE  
HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

## KANPEZUKO UDALA

## Kanpezun enplegua sustatzeko laguntzen deialdia onartzen duen 2024ko martxoaren 5eko osoko bilkuraren erabakiaren laburpena

BDNS (Identif.): 747571.

Diru-laguntza orokorre buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Legearen 17.3.b eta 20.8.a artikuluetan ezarritakoaren arabera, deialdiaren laburpena argitaratzen da. Horren testu osoa datu base nazionalen aurki daiteke. Diru-laguntzak (<https://www.infosubvenciones.es/bdnstrans/GE/es/convectoria/747571>).

## KANPEZUN ENPLEGUA SUSTATZEKO LAGUNTZEN DEIALDIA

## Lehenengoa. Onuradunak

Kanpezuko udalerrian dauden pertsonak, enpresek edo haien sukurtsalek jaso ahal izango dituzte kontratazioagatiko pizgarriak, bai eta, egoitza soziala udalerritik kanpo izanda ere, udalerraren barruan noizean behin edo aldizka edozein jarduera edo lan egiten dutenek ere.

## Bigarrena. Helburua

Kanpezuko udalerrian errolatutako pertsona langabe eta ekintzaile autonomoen laneratzea eta gizarteratzea sustatzea da oinarri hauetan araututako laguntzen xedea, eta, horretarako, pertsona horien kontratazioa edo norberaren konturako ezarpena sustatzeko dirulaguntzen ezarpena arautuko da.

## Hirugarrena. Oinarri arautzaileak

Udalbatzaren Osoko Bilkurak onartu zituen 2024ko martxoaren 5ean.

## Laugarrena. Zenbatekoa

1. Honako hauek lagunduko dira diruz, baldin eta enpresako plantilla osoa handitzen badute kontratazio berria egin aurreko 6 hilabeteetan zegoenaren aldean:

a) Iraupen mugagabeko kontratuak. Aldizkako finakoak ez dira sartzen: 1.500,00 euro.

b) Langileen Estatutuaren Legearen testuategina onartzen duen urriaren 23ko 2/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren 15.1 artikuluen a) eta b) letretan ezarritako kontratuak, gutxienez 12 hilabeteko iraupena dutenak, salbu eta b) apartatu horretako kontratuak, sektoreko hitzarmen kolektiboak gutxienezko iraupena baimentzen ez duenean, hitzarmen horretan ezarritakoa izango da, eta, nolana ere, gutxienez 6 hilabetekoa.

Plantilla osoaren ondorioetarako, ez dira kontuan hartuko bitarteko kontratua duten langileak.

Kontratu horiek gutxienez urtebeteko iraupena badute, 750,00 euroko dirulaguntza emango da.

Kontratuaren iraupena gutxienez sei hilabetekoa bada, dirulaguntza 350 eurokoa izango da.

Zenbateko horiek ehuneko 20 handituko dira, baldin eta inoiz enplegurik lortu ez duten 30 urtetik beherakoak, iraupen luzeko langabeak (12 hilabete enplegu-eskatzailerik gisa inskribatuta) edo langabeziatik datozen 55 urtetik gorakoak kontratatzen badira.

Ehuneko horiek ezin dira elkarren artean metatu.

Ehuneko horiei ehuneko 20 gehituko eta metatuko zaie kontratatutako pertsona emakumea bada.

2. Autonomoak badira, 1.500,00 euroko dirulaguntza emango da, eta aurreko paragrafoan jasotako ehunekoekin handituko da, baldin eta kolektibo horietakoren batean sartuta badaude.

3. Lanaldi partzialeko kontratuetan, lanaldi osoko langile baten lanaldiaren ehuneko 50eko gutxieneko iraupenarekin, aurreko pizgarriak benetako lan-denboraren proportzioan hainbatutuko dira.

4. Laguntza horiek gehienez ere 3 kontrataziotara mugatuko dira enpresa eta urte bakoitzeko, horien dedikazio-denbora edozein dela ere.

Dirulaguntza bat baino ez da emango pertsona bera kontratatzeagatik, eskaera enpresa batek baino gehiagok egin arren.

Autonomoen kasuan, eskaera bakoitzeko IFZ baten gehieneko dirulaguntza baino ez da emango.

5. Arestian aipatutako kontratu-moten izendapenak dagokion urteko deialdia onartzen den unean indarrean dagoen lan-araudiaren mende egongo dira.

**Bosgarrena. Eskabideak aurkezteko epea**

Eskaerak, aurkeztu beharreko dokumentazioarekin batera, kontratazioa edo EJZn alta eman eta 3 hilabete igaro ondoren aurkeztuko dira, 6 hilabeteko epean.

Santikurutze Kanpezu, 2024ko martxoaren 8a

*Alkatea*

*IBERNALO BASTERRA TXASKO*